





SAN FELIX IKASTOLA:

Impacto de San Felix Ikastola en la digitalización de su entorno



Aitor Elorriaga Basterra
zuzendaritza@sanfelix.org
652724440
<https://sanfelix.org/>

-
-  **Jarduera:** 50 urte baino gehiagoko ikastola. 0-16 urte arteko ikasleak artatzen ditu eta 560 ikasle baino gehiago dauka, gehien bat Meatzaldekoak, Ezkerraldekoak eta Castro Urdialesekoak.
 -  **Sektorea:** Educación
 -  **Enplegatutako pertsonen kopurua:** 60
 -  **Lokalizazioa:** Lasagabaster, 1, 48530 , Ortuella, Bizkaia

EUSKADI mailako berrikuntza INKREMENTALA**Zergaitik izango litzateke berrikuntza kasu praktiko bat?**

Ikastola aitzindari baten eraldaketa digitaleko kasu bat da; izan ere, ikastola horretako kudeaketa osoa «in the cloud» egiten da, Google Apps for Education-en bidez. Kudeaketa-eredu berritzaile horri gizarte-konpromisoko estrategia bat gehitzen zaio, ikastola bere ingurunean ezagutza digitala sozializatzea bideratutako jarduera guztien buru delako, testuinguru sozioekonomiko konplexu batean (2014. urtea).

KASU PRAKTIKOARI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA

San Felix Ikastola Ortuellan dago. 50 urte baino gehiagoko ikastola da. 560 ikasle baino gehiago dauzka, 0-16 urte bitartekoak, gehien bat Meatzaldekoak, Ezkerraldekoak eta Castro Urdialesekoak.

San Felix Ikastola zentroaren kudeaketan eta funtzionamenduan berrikuntza aplikatzen saiatu da beti. 2014an, hainbat soluzio txertatzen huts egin ostean, prozesu guztien eraldaketa digitalean aurrera egiteko xede irmoa izanda, Google Educationekin lan egiteko aukera aztertu zen. Hodeiko soluzio horrek abantaila ugari zituen. Haien artean, ezarpena erraza nabarmentzen zen; izan ere, dokumentuen erabilera partekatua eta elkarlanekoa ahalbidetzez gain, prozesukako kudeaketarako arintasuna eskaintzen zituen, eta, jakina, inolako kosturik gabe. Hala ere, hodeiko kudeaketako eredu horretara aldatzea erabaki zenean, ikusi zen familiek eta inguruak ez zutela oinarritzko gaitasun digitalik, teknologia hori erabili ahal izateko eta zentroarekin erraz eta eroso komunikatzeko.

Ahultasun horren jakitun, San Felix Ikastola ikastolak bere inguruko kulturalizazioaren lider izatea planteatzen du. Lehenengo eta behin, hautatutako euskarri-tresna, Chromebook, ikasleena izatea erabaki zen, etxera eraman eta familiek erabili ahal izateko. Bigarrenik, hainbat doako prestakuntza-ekintza egin ziren, tresna teknologiko berriak ingurunera hurbiltzeko. Gainera, oso prestakuntza-neurri sortzailea gehitu zen: prestakuntza ematea ikastolan sartzen ziren pertsona guztiei; lehenengo fasean, administrazio-espaziotik sartzen zirenei, eta bigarren fasean, irakasleekin harremana zutenei. Horrez gain, banakako prestakuntza eskaini zitzaion herriko edo inguruko edonori, norberaren gustura, eta gehienek ezagutzen ez zituzten tresna teknologikoei buruzko bideo tutorialak sortu eta partekatu ziren.

Horretaz aparte, San Felix Ikastolak bere inguruko gaitasun digitalak hobetzen lagundu du, jarduketa ugari bidez, hala nola kultur etxean interneti buruzko hitzaldiak antolatuz PANDAREN zuzendariarekin, familiak prestatzeko hizlari bat kontratatuz, La Caixarekin lankidetzan ziber SFa sortuz eta inguru guztiari zabalduz, eta azkenik, edo ordenagailuak herriko Junior GKEari lagaz.

2020an, konfinamendua heldu zenean, beste eskola batzuen kasuan ez bezala, ez zen ia aldaketarik egon San Felix Ikastolaren funtzionamenduan; izan ere, hezkuntza komunitatea aspalditik dago ohituta materialak eta tresnak online lantzeraz.

Aurrekariak

Gure ikasleek gaitasun digitalak lortzeko beharren aurrean (2020ko Heziberrin jasoak), eta zuzendaritza-taldearen hausnarketa estrategikoaren ostean, San Felix Ikastolak aurreratzea eta teknologia berrien aplikazioen punta-puntako ikastetxe bihurtzea erabaki zuen. Hori horrela, 2014an, berrikuntza-taldearen gidaritzapean, San Felix Ikastolak bere prozesu guztien digitalizazioari ekin zion.

Erronka

Erronka nagusia honako hau zen: kudeaketa, hezkuntza-proiektuak eta inguruneak digitalizatzea, teknologia berriak ia edo guztiz ezagutzen ez dituen ingurune batean horrelako berrikuntza batean aitzindari izateak dakarren zailtasunaren jakitun izanda. Proiektuaren arduradunek dagoeneko aurreikusten zuten erronka izango zela familiek liburu barik lan egiteari zioten beldurra gainditzea.

Ekintzak

1. Abiapuntua: Modernizazio teknologikoa funtsezkoa da San Felix Ikastolarentzat. Irakasleek 2009tik dagoeneko netbook bat zuten autoikaskuntzan aurrera egiteko, eta ikastolak adi jarraitzen zuen IKTen esparruan hobetzeko aukerak ezagutzeko, eta irakaskuntza-, administrazio-, informazio- eta komunikazio-prozesuen digitalizaziorantz aurrera egiteko.
2. 2013an: Lan-batzordea osatu zen, zeinak merkatuan zeuden tresna digital guztiak aztertu zituen, guztientzako (ikastola, ikasleak eta familiak) onena zena aukeratzen saiatzeko, betiere kostu orekatua bazuen eta baliozkotasun pedagogikoaren erabateko lehentasuna azpimarratuz. Google apps for Educationen alde egin zen, baliabide erraza, arina, eskuragarria eta doakoa.
3. Konponbidea pixkanaka txertatu zen ikastolan. Azterlan bat egin da ikasgelarako joera digital berriak txertatzeko (ukipen-pantailak arbel digitalen ordeztu).
4. 2014an, ikastolako kudeaketa sistema integrala hodeira eraman zen, liburuak eta papera (ahal izan zen neurrian) desagertu ziren eta proiektuak lan egitera igaro zen.
5. Prestakuntza planteamendu berria egin zen, barnekoei zein kanpokoari. Ikastolako harrera prestakuntza-puntu bilakatu zen. Bertan, inguruarentzako zuzkidura irekia eta gai digitalei buruz ikasi nahi duen pertsona orori prestakuntza emateko gaitasuna duen idazkaritza gaitu ziren. Prestakuntza bideo-tutorialak sortu ziren, familientzako prestakuntza-ekintza presentzialak prestatu ziren, etab.
6. 2016an: ikastolan zuntz optikoa instalatzea lortu zen.

Lortutako emaitzak

- Lerro bat handitzea ikastola osoan (bi gela maila bakoitzeko), bere izaera berritzaileak bultzatuta.
- Ikasleen/familien gogobetetze-maila handitzea (8,7/10 gogobetetze-maila konfinamenduan zehar)
- Kudeaketa-kostua murriztea, plataforma ireki bat erabiltzeagatik (besteak beste, familiei gastu gehiago ez eragiteko xedearekin).
- Lana proiektuetan banatzea ikastola osoan: libururik ez, ez eta gehiegizko paperik ere ez, jasangarritasuna bermatzeko .
- Kudeaketa eraginkorra hodeian; horretarako, dokumentu partekatutak eta baimen espezifikoak erabili dira interes-taldeentzat, segurtasuna bermatzeko.
- Jardunbide egokiak zabaltzea: EEGapps topaketan parte hartzea, estatuko eta atzerriko beste ikastetxe batzuen bisitak, bai eta enpresenak ere, esperientzia ezagutzeko xedearekin.
- San Felix Ikastola, kudeaketa aurreratuaren urrezko A lortu zuen lehenengo ikastola. 2015ean eskuratu zuen. Horrez gain, 2017an, Berrikuntzaren Euskal Saria jaso zuen, eta 2020an, Pertsonen Euskal Saria.
- Heldutasun maila altuaren egiaztapena Eusko Jaurlaritzaren partetik.

KASUAREN KATEGORIZAZIOA

Berrikuntza-eremuak:

- Prozesua: Berrikuntzaren Kudeaketa.

Aukera arloak:

- 1 - Eraldaketa teknologikoa/digitala
- 2 - Gizarte eraldaketa eta konpromisoa

EHUko ikaslea, ikastola bisitatzean eta esperientzia ezagutzean.

«Atentziora eman dit atzean dagoen lan guztiak, hori posible egiteko azterketa- eta ikerketa-lanak, eta hezkuntza-komunitate osoak izan duen partaidetzak; izan ere, guztiak ados egon dira, eta ildo berean lan egin dute».

Nieves Fernández (Felix Ikastolako zuzendari ohia)

«Gure ikasleek beste modu batera lan egiten dute, Google Educationekin. Ez daukate libururik ezta idazmahairik, helduen baliabideak erabiltzen dituzte, hala nola kalkulu-orriak, driveak, egutegiak eta abar. Halaber, tresna horiek ikastolan eta etxeetan erabiltzen dituzte, gure helburua ingurunearen kulturizazio digitala ere delako».

Innovation Index Score: ★★★★★

Lerrokatze estrategikoa: ★★★★★☆

Kreatibitatea: ★★☆☆★★

Kolaborazioa eta hibridazioa: ★★★★★★

Sistematizazioa: ★★★★★★

Eraginkortasuna emaitzetan: ★★★★★★

Efizientzia emaitzetan: ★★☆☆★★

Erreplikagarritasuna eta transferigarritasuna: ★★☆☆★★

★

Eragina: ★★★★★★

Aintzatespena: ★★★★★★